

ARABAKO ERRIOXA

ARABA A.39 Biasteriko aintzirak



Babestutako eremu hau Arabako Errioxako eskualdearen erdian kokatuta dago, Biasteritik hurbil. Jatorri naturaleko hiru hezegune txiki eta antzinako putzuz betetako eremu bat presatzean sortutako laugarren hezegune artifizial bat barnean hartzen ditu. Aintzira hipergazi horiek

euri-uraren ekarpenak bakarrik biltzen dituzte eta interes berezia dute, uretako migrazio-hegaztien atsedenleku gisa duten garrantziagatik eta bertako flora bitxiagatik; izan ere, bertako flora uraren gazitasunari eta Arabako Errioxako ingurune Mediterraneo lehorrari egokitu zaie.



FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

• Biotopo Babestua (1995) // RAMSAR (2002) // IKT (Interes Komunitarioko Tokiak).

LANERAKO GAIK

- Paisaiaren eraketa: aintziren jatorri geologikoa.
- Aintziren funtzionamendu hidrologikoa: aintzira endorreikoaren kontzeptua. Urtaroko izateari loturiko uraren maila, ondorio biologikoak.
- Toloño-Kantabriako mendilerroa: hesi bioklimatikoa. Kliman, landaredian eta giza jardueran duen eragina.
- Paisaiaren interpretazioa: mendilerroa, gune hezeak, Ebro ibaia, soro landatuak, herriak, etab.
- Prao de la Paul-eko aintzira: jatorri artifiziala, egungo erabilerak, urari loturiko landaredia.
- Muscoko aintzira: iraganeko lehorketa eta bere leheneratze-prozesuaren balorazioa.
- Uretako hegaztiak: behaketa zuzena (morfologia, elikadura, azturak...).
- Egungo landaredia eta izan daitekeen landaredia: basoen ordez giza jarduera.
- Mediterraneoeko sasía: erromeroa, ezkaia, izpilikua, estrepa, elorri-triska, etab.
- Inguruneak dituen arriskuak: kanpoko espezieak sartzea, ureztatze ura ateratzea, laborantza intentsiboa sartzea, plagizidak, ehiza, etab.
- Arabako Errioxako nekazaritza: mahastiak, mahasgintza-ardogintzaren sektorea, mahastiko lanak, eskualdearentzat duen garrantzi ekonomikoa. Olibondoak Arabako Errioxan duen garrantzia.
- Biasteri, monumentu-herria: herriaren jatorria eta eboluzioa, harresiak, lurpeko upeltegiak.